


# BERRIKETAN

Debago herri aldizkaria - 254. alea - 2020ko abuztua



**Jairik gabeko  
ezohiko udaldia**



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**Calbeton**  
JATETXEA

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**50 URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otarrekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauean tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**ONDO PASA UDA GARAIA  
eta gogotsu bueltatu!**

**Matrikula zabalik**

**Ikastaroak**

**Aurrez aurrekoak:** 2, 3 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.

**Autoikaskuntza Internet bidez.**

**Euskara ulertu eta euskaraz bi-zitzeko ikastaroak.**

**Mailak:** A1, A2, B1, B2, C1, C2.

**Azterketa prestatzeko ikastaroak:** HABEren titulu ofizialak, Administrazioa, Osakidetza.

**16 urtetik gorakoentzat**

**Matrikulaldia:** Irailaren 25era arte

**Langabetu, ikasle eta gurasoek**

**MATRIKULA ERDIA**

Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat (Baldintzak betez gero)

**Informa zaituz Udal Euskaltegian!**

**DEBATE UDAL EUSKALTEGIA** Deba: Ifar Kalea, 12 - 943 192 236

**Matrikula ordutegia** 10:00-12:30 / 17:00-19:30

# AURKIBIDEA

8

## KRONIKA

Udako egitaraua  
Gaztetxean;  
*Asteazken Akustikoak,*  
*Ilunabarrak eta abar*

12

## ELKARRIZKETA

Herriko jaiak genero  
perspektibatik ikertu  
ditu Irati Baroja  
Agirregabiriak

14

## ELKARRIZKETA

Iñaki Iriondo  
Lecea  
*Debarrak Munduan*  
ataleko protagonista

15

## KOLABORAZIOA

*“Begiradak:*  
zazpi urte bete dituen  
familia anitza”  
(Amaia Zinkunegi)

16

## LITERATURA

*Ikasleak idazle:*  
Mendatak eta Zuhatzak  
antolatutako lehiaketan  
saritutako ipuinak



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA

**Zuhatz**  
MUNDUAK BIRGOTATZEN DITUE

LAGUNTZAILEAK



DEBAIKO UDALA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Alex Turrillas, Nagore Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzio taldea

**Publizitatea:** Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**Inprimategia:** Euskalinpri

**ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## ***Berriketan* aldizkariaren hurrengo alea, urrian!**

Esku artean daukazuen ale honekin agurtzen du *Berriketan* herri aldizkariak ikasturtea. Abuztuaren erdialdean oporrrak hartuko ditugu erredakzioan, baita Zuhatza Euskara Elkartearen ere; hori dela eta, urtero bezala, irailean ez dela

*Berriketan*-ik kaleratuko gogorarazi nahi dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu. Ordura arte agurtzen zaituztegu beraz!

Aldi berean, lerro hauen bitartez, datozen asteotan ondo pasatzea opa dizuegu.

Eta, badakizue, irailetik aurrera izango dugu berriz ere elkarren berri. Bien bitartean, zaindu eta, batez ere, gozatu, baina ez ezazue euskara oporretara bidali! Badakizue, gu nora euskara hara!

*Zuhatza Berriketan*

## **Inflexioa**

Ez da gazia soilik itsasoko ura... Gaziak dira zure malkoak plazan zezenei begira klarinetearen ertzetik ezpainetaraten zaizkizunean. Gazi eta arnasezin da airea, garabiak zezen boteretsu bat txotxongilo modura kulunkatzen duenean plazaren atzealdean, umeen begi inozoen aurrean.

Baina ez da gazirik gozorik gabe. Eta... gozoa ez da nigandik urrundu aurreko

zure azken muxua soilik. Gozoa da, iaz bezala, pozak liluraturik, pankarta eta aterkiak airera jaurtitzean euriaren usainak blaitzea. Festa eta algarak kaleaz jabetzean eztarrian nagusitu zitzaiguna da gozoa, zezenketari behingoagatik bizitza gailendu zitzaiolako; naturak, euri forman, berea eskatu zuelako nazka-nazka eginda.

Gazi-gozoak izango dira aurtengoan

festak. Gaziak, festarik ez delako izango. Gozoak, oso gozoak, zortzi zezenek biziko duten azkena ez delako Debako plaza, zalaparta eta odol-erreka bat izango.

Gutxika bistatu zaigun inflexio puntua ote? Orain "bixok maitte degun jolasa" ren txanda da.

Dei diezaiogun... amaieraren hasiera.

*Debako Zezenketen Aurkako Taldea*

## **Indar bizi bat bezela...**



*Izena ere zuk Mikel  
politagorik non daiteke?  
Izarrarekin barre egin eta  
hori zorapide!  
Zuregan biak ahaide,  
bikiena dute aire,  
zein zeini zaion bietan zordun  
izarrek dakite.*

*Bazenuen zer emanik  
zeu askodun ez izanik,  
non ezagutu da zuk arindu  
ez duzun premiari?  
Bere horretan gordinik  
edo opari eginik,  
esku horietan ez da faltatu  
ogi eta arrainik.*

*Labur bizi izan zera  
denboraren arabera:  
berrogeita zortzi denera;  
baina on egiteko orduan  
guztiongana iritsi zera  
indar bizi bat bezela!  
Ai! nola dugun eskertu  
zure argizko itzala.*

*Marian Larrañaga*

## **"Euskal Herrian Euskaraz" berritu dugu**

Joan den uztailaren 20an, Debako eta Mutrikuko herritar talde batek, elkarlanean, Ondarbeltzeko harri-lubetako horma luzean 80ko hamarkadaren bueltan idatzitako "Euskal Herrian Euskaraz" murala berritu genuen.

2016an ere berritu genuen lehenago, baina dagoen lekuan egonik, itsasoaren eragin zuzena jasaten du; beraz, kresalak

higatu egin du, eta oso hondatuta zegoen jadanik.

Debako hondartza inguruko paisaiaren parte bilakatu zaigu dagoeneko idatzia, eta honezkero balio historikoa ere irabazia duela esan genezake; haren mezua aldarrikatu beharra, aldiz, oraindik ez da historiara pasa, zoritxarrez.

*E.J.*





## “Datorren denboraldira begira lanean hasi da Kluba; helburua da ahalik eta talde gehien aurrera ateratzea”

Denboraldi ezberdina izan da aurten-go, ezin izan dugu gure gustuko kirolaz gozatu, baina irakasgai garrantzitsua izan da garrantzitsuagoak diren gauzak badaudela konturatzeko. Klubak geldialdia hausnarketarako aprobetxatu du; azken 4 urteetan eginikoa baloratu eta aurrera begira egin beharreko urratsak zehaztu ditu.

2019-20 denboraldiaren balorazioa oso positiboa izan da kirol arloan, bai emaitzen aldetik eta baita jokalarien kirol-garapenari dagokionez ere. Federazioko lehiaketan aritu diren taldeak oso ondo aritu dira, baita Mendaro eta Debako Saski Eskolak ere.

Mendaroko Saski Eskolarentzat lehen denboraldia izan da, baita bertako entrenatzaileentzat ere. Urtea aurrera joan ahala joan dira egokitzen, eta oinarri sendoak jarri dituzte hurrengo urteetarako. Datorren urtean berriz errepikatzea espero da eta hainbat gauza hobetzea. Debako Saski Eskolari dagokionez, balorazioa oso positiboa izan da, apuntatutako ume kopurua igo delako eta aurten lehen partidatxoak jokatu direlako ere bai, Zarautz eta Aloña Mendiren aurka. Bi eskolen artean 36 umek hartu dute parte: 12k Mendaron eta 24k Deban.

Infantilek isilean pasa dute urtea, entrenatzen bakarrik, partidarik jokatu gabe,

baina lanean fin. 2020-21 denboraldian, lehen aldiz, Debasket Kluba parte hartze mailako infantil taldea izateko lanean ari da. Aurtengo urtearen balorazioa positiboa izan da, lan ona egin baitute eta asko aurreratu jokalariei zein entrenatzaileek.

Kadete taldearekin hasiko gara, Urkunde Debasketekin, lehiaketan aritu diren taldeak aztertzen. Denboraldi ona egin du, garaipen garrantzitsuak lortuz eta saskibaloia polit bat jokatu. Jubenilei dagokienez, Gora Behera Debasketek, nahiz eta hainbat lesio izan, lehiatzen jakin du, eta garrantzitsua dena, jokalaria asko hobetu dira. Horieta asko seniorretara pasatuko dira, klubean nagusietara iritsi den lehen belaunaldia handia izanik.

Taldeen balorazioari dagokionez, Zalburdi Debasketek, maila probintzialeko hirugarren mailako taldeak, urte ona izan du bere taldean laugarren amaituz, eta jokalarien kirol-garapena ona izan da. Lehen mailako Electricidad Perosanz taldeak taularen erdialdean amaitu du, 10 garaipen eta 10 porrotekin. Maila ona erakutsi du, igo berria zela kontuan izanda.

Kluba datorren denboraldira begira lanean hasi da, eta helburua ahalik eta talde gehien aurrera ateratzea da. Oraingo ziu-

tatuta dauden taldeak infantila (2007-2008), kadetea (2005-2006), jubenilak (2003-2004) eta bi senior talde dira. Horiez gain, Mendaro eta Debako Saski Eskolak (2009-2012) ere ziurtatuta daude.

Kirol maila hobetze aldera eta jokalariekin egiten den lana hobetzeko, klubeko hainbat partaide entrenatzaile-ikastaroak egiten aritu dira. Horieta zazpik hastapeneko maila egin dute, bik lehen maila, eta beste bik bigarren maila. Azkenik, entrenatzaileetako bat maila goreneko ikastaroa egiten hasi da.

Klubeko atak irekita daude edozeinentzat, bai jokalariei, bai entrenatzaile edo laguntzaile moduan ekarpenak egin nahi dituzteentzat. Horretarako, klubarekin kontaktuan jarri besterik ez duzu egin behar, 621019383 zenbakira deituz edo mezua bidaliz [debasketsk@gmail.com](mailto:debasketsk@gmail.com) helbidera.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu gure babesle zaretan Electricidad Perosanz, Gora Behera, Urkunde, Zalburdi, Asketa, Arteondo, Sutan Grafik, Transportes Mutriku, Azoka, Asesoria Deba, Albizu harategia eta nola ez, bazkideei. Zuek guztiok gabe proiektua aurrera eramatea ezinezkoa izango litzateke.

*Debasket Saskibalo Kluba*

### Egin eta egon

Hizki bakarrak eraldatzen du bizi-estiloa.

Korrika egin, lan egin, bazkaria egin,... Eginen lagunak dira ekin, jardun, ibili, mugitu, eta azkar.

Etxean egon, irakurtzen egon, bazkaltzen egon,... Egonen lagunak, aldiz, itxaron, hausnartu, gelditu eta lasai.

Hain berdinak baina horren desberdinak. Deabrua eta aingerua bailiran gure kontzientzian agertzen dira sarritan. Egon nagusitzen denean egin azaltzen da: *Zer egiten duzu hor geldit? Segi azkar korrika egitera, gero erostetak egin, lan asko daukazu egiteko! Nola egon zaitezke hor, geldit?*

Ordua da! Erlojuak ez du etenik eta eguna betetzen doa, egin behar duzuna bukatu beharra daukazu!

Hain ondo nengoen! Ezin da momentu batez lasai egon! Eguzkiaren izpien berotasuna sentitu

du eta hor, egonean, izpi horiek ezagutzen ez nituen sententzioak aktibatu dituzte. Orain, hemen,... lasai egoten.

Aliziaren untxia pasatu da korrika erlojuak eskuetan duela: *Berandu da! Berandu da!* oihukatuz. Berandu zertarako, berriro egiteko? Nik hemen gelditu nahiko nuke, egonean. Uste dut nire barneko deabrua berriro ni astindu nahian dabilela. Baina gaur ez. Ez diot kasurik egingo.

WhatsApp sartu da eta eskua luzatu dut telefonoa hartzeko. Baina hura ukitu eta eskuak atzera egin du berriz. Aliziaren untxia berriz zaratatu pasa da gaur ere, baina ez naiz hain erraz zuloan eroriko. Badakit Bihotzetako Erreginak izango duela lepoa mozteko beste norbait. Ez, gaur ez. Hemen geldituko naiz, itxaroten eta lasai: egonean.



**MARI SEARA**

iritzia

## Alfabetizazio digitala: bazterkeriari aurre egiteko iparrorratza

Gizartean gertatu den eztanda teknologikoaren ondorioz, erabat aldatu dira harreman-erak, komunikatzeko eta laguntzak eskatzeko bideak, lana bilatzeko aukerak eta abar. Aitortu beharra dago teknologia berriek eta sare sozialek makina bat baliabide eta informazioarako sarbide erraztu dituztela, betiere erabiltzeko nahikoa prestakuntza eta gaitasun-ekonomiko izanez gero, COVID19ak agerian laga duen bezala.

Hori horrela izanik, informazioaren gizarteak behartu egiten gaitu gaitasun berrietara egokitzera: alfabetatu beharra dago. Etimologikoki alfabetatu hitzak irakurtzeko eta idazteko gaitasuna adierazten badu ere, informazioaren gizartean, gaitasun horiez gain, beste zenbait gaitasun eskuratu behar dira integratzeko, bestela baztertuak izan gaitezke. IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) nahitaezko baliabide direnetik, ahaldun- eta analfabeto-digitalaz osaturiko gizartean bizi gara.

Bazterketaren ezaugarri nagusia da harreman sozialen apurketa eta isolamendua. Haustura horiek konpontzea da gizarteratze-prozesuaren helburuetako bat. Beste hitz batzuekin esanda, lan arloko, familia zein lagun arteko harremanak indartzea. Azken finean, sare horiek ehotzeak bizirauteko baliabide pertsonalak eta gaitasunak lortzen laguntzen du.

Baliabide horietako bat dugu alfabetizazio digitala: gizarteratzeko modu garrantzitsua.

Alfabetizazio digitala teknologia erabiltzen edo informazioa lokalizatzen irakastea baino haratagokoa da: ahalduntze teknologikoa eta informazionala eskuratzeko da. *Ahalduntze teknologikoa* teknologiaren inguruko jakintza da: funtzionamendua eta eskain ditzakeen aukera anitzak ezagutzea. *Ahalduntze informazionala*, berriz, informazioa lortzeko, sailkatzeko eta erabiltzeko trebezia da: kudeatzen ikasi behar da.

Esan gabe doa informazioaren eta komunikazioaren jendartean, IKTak nahitaezko baliabide direla bizirauteko: eguneroko egitekoak gauzatzeko. Baliabide pertsonalen artean, lanerako trebatua izateak aparteko eragina du. Trebakuntza horretan balio erantsia du digitalki gaitua izateak.

Teknologietan ahaldundua ez egoteko arrazoietakoa bat arrakala digitala da, baina **zer da arrakala digitala?**



**Definizioz IKTak erabiltzeko gaitasuna eta baliabideak dituztenen eta ez dituztenen arteko tartea da.** Arrakala digitala dago bazterketa digitalaren oinarrian. Horrenbestez, analfabeto digitala izango da oztopo teknologikoak gainditzen edota jakintza bereganatzeko informazioa egoki kudeatzen ez dakiena. Ondorioz, lubaki digitala zatiketa-elementu bilakatu da norbanako, talde, komunitate eta herrialdeen artean. **Hala, alde soziala eta bazterketa teknologikoa gizarte-bazterketa bihurtu dira.** Horien adibide ditugu konfinamendugaraiaren eskolak etxetik jarraitu ezin izan dituzten ikasleak, besteak beste.

Ez dago dudarik Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak txanponaren bi aldeak dituela: laguntza ematen du alde batetik, eta, bestetik, baztertu. Argi dago era guztietako informazioa lortzeko aukera zabala, erraza eta azkarra dela, betiere teknologia berriak erabiltzeko gaitasuna, eta zalantzarik gabe, baliabide ekonomikoak eskura badira. Hala ez denean, baina, delako "Sare 3.0" zabal horretatik kanpo geratzeko arriskua dago.

Horrenbestez, gaur egun, administrazioan zein pertsonen arteko harremanetan, **nahitaez jakin behar da interneta eta mugikorra erabiltzen, bestela galduta gaude: baztertuta.** Orain arte esandako guztiagatik, ondoriozta daiteke alfabetizazio teknologikoa iparrorratz dela jendartean integratuta bizitzeko.

*Itziar Arana*

**"Gaur egun  
nahitaez jakin behar da  
interneta eta  
mugikorra erabiltzen,  
bestela galduta gaude:  
baztertuta"**



**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

## Irailaren 27an amaituko da *Ariguneak* sortu eta entitateek izena emateko epea

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua.

Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza-ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. 2020an, azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo dugu ariketa eta aurten, norbanako bezala (*ahobizi* edo *belarriprest* izanez) parte hartzeko aukeraz gain, taldean parte hartzeko aukera ere izango dugu *arigune*-en bidez.

**\*Barne-arigunea:** entitate edo elkarteetan dauden talde naturalak dira. Kideen % 100ak euskaraz ulertu eta % 80 ariketan parte hartzeko prest badago, *arigunea* osatuko da eta, horrela, ariketak irauten duen bitartean, ahoz, euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute.

**\*Kanpo-arigunea** osatzeko, berriz, herritarrekiko harreman-espazioetan dauden langileen artean uneoro *belarriprest* edo *ahobizi* bat izatea bermatu beharko da.

Deban badira, jada, elkarte, enpresa, komertzio, erakunde eta bestelako entitateak euskaraz aritzeko guneak sortzeko konpromisoa hartu dutenak; *ariguneak* osatu, saretu eta gune horiek babestuko dituztenak. Euskaraz gehiago egin nahi dutenei horretarako aukera emango diete horrela, eskolatan egiten den lanari babesa emanaz eta euskararen biziberritze prozesua hauspotuz.

Lan horretan dihardu, azkenaldian, Debako Euskaraldiko Herri Batzordeak, COVIDak derrigorrez ezarritako etenaldiaren ostean. Horren harira, herrian elkarte, denda eta ostalari zein enpresa gehiago animatzeko bideoa sortu dute, sare sozialen bidez zabaldu dutena. *Ariguneak* sortu eta entitateek izena emateko epea irailaren 27an amaituko da.

Lan horretan dihardu, azkenaldian, Debako Euskaraldiko Herri Batzordeak, COVIDak derrigorrez ezarritako etenaldiaren ostean. Horren harira, herrian elkarte, denda eta ostalari zein enpresa gehiago animatzeko bideoa sortu dute, sare sozialen bidez zabaldu dutena. *Ariguneak* sortu eta entitateek izena emateko epea irailaren 27an amaituko da.

Debako Euskaraldiko  
Herri Batzordea



## Amaitu dute Luzaro eskolako jangelako akustika-arazoak konpontzeko obra

Aspalditik zetorren akustika-arazoari konponbidea jarri zaio bukatu berri den Luzaro eskolako jangelako obrarekin. Ikerketa akustikoa egin zen orain dela urte batzuk eta, emaitzek ziotenez, jangelan bazkaltzen zuten ikasleek eta bertako langileek jasaten zuten zarata osasunerako kaltegarria zen. Lanokina, beraz, erabiltzaileen osasuna zaindu nahi da.

Sabaia jaitsi eta panel akustiko berriak jarri dira, eta horiekin, sortzen zen oihartzun maila jaitsi egingo da.

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu du Luzaro eskolan egindako lana, Udalaguntza programaren bitartez. 42.000 euroko inbertsioa egin da orotara. Diru kopuruaren % 60 Eusko Jaurlaritzak jarri du eta beste % 40a Debako Udalak.



JON ETXANIZ

### Osasuna krisian

Beldurrak baditu esanahi eta funtzioa osasun-krisi honetan, egoeren aurrean adi egotera eta geure burua babestera garrantzitsua da. Hala ere, komunikabideen bonbardaketak eragindako gehiegizko beldurrak onura baino kalte gehiago sor dezake, edonor paralizatzeraino.

Azken hilabeteetan arreta eman dit aurrekaririk gabeko osasun-krisiaren aurrean gaudela dioteneke zein gutxi hitz egin duten osasunaren aldeko neurriez. Hainbat ordu eskaini zaizkio gaixotasunari eta pandemiari aurre egiteko neurriek. Aldi berean, ordu horietatik minutu bat bera ere ez osasuntsu egoteko ohiturez hitz egiteari.

Gaixotasunaz beharrean osasunaz hitz egingo bagenu, ezingo genituzke "askatasuna" eta "plazera" kontzeptuak albora utzi. Askatasuna kentzen zaigunean, osasuna kentzen zaigu; plazera gure bizitzaren iparrorratza da, zerk egiten digun on adierazten diguna. Pandemiari aurre egiteko hartutako neurriek askatasuna mugatu digute (aisialdia, harremanak, bidaiak, naturarekiko kontaktua...), eta horrek zuzenean eragin dio gure plazera eta ongizateari.

Garrantzitsua deritzot gure osasunaren ikuspegia aldatzeari: pasibo eta beldurtuta egotetik, neurriak hartu eta ahalduzera pasatzeari. Kanpoko soluzioaren zain eta ingurukoak epaituz egon beharrean, saia gaitetzen gure osasunaz arduratu eta on egiten diguna egiten, elkar errespetatuz.

Ez dakit noiz arte egongo garen horrela, nola bukatuko den hau guztia, edota zein diren neurriak egokienak. Baina, geure burua osasuntsu mantendu eta mimoz tratatzeko ardura norbanakoa den heinean, horretarako ahalegina egin beharko genukeelakoan nago.

## UDAKO EGITARAUA GAZTETXEAN



Aritz Manzisidor



Herriko beste hainbat eragilerengan bezala, Covid 19ak Gaztetxeako udako egitarauan eta bere planteamenduan ere izan du eragina. Jakina denez, hainbat uda daramatzagu Gaztetxean **Asteazken Akustikoak** kontzertu-ekitaldiak antolatzten; uztaileko asteazkenetan eskaini izan dira kontzertu hauek eta Gaztetxera jende asko hurbiltzeko aukera paregabea izan ohi da. Azkenengo urteetan, gainera, kanpotik ekarritako zenbait talde famatu zein herriko beste hainbat musikari izan dira protagonista eta, aurten ere, bide beretik jarraituz, ekintza hau aurrera eramatea erabaki zen, egoera aztertu ondoren, duela pare bat hilabete. Distantziak mantentzea derrigorrezko arau bilakatu denez gero, Gaztetxearen edukiera murrizta kontuan hartuta, aur-

ten ekitaldia Kultur Elkarteko plazan egi- tea erabaki da. Horrela, arau hori oztopo- tzat hartu beharrean, txoko zoragarri hori baliatu nahi izan dugu gure musika jende gehiagorengana iristarazteko.

Bost Asteazken Akustiko planteatu dira aurtengo udarako, oraingoan abuztuko pare bat asteazken ere barne hartuta. Lehenengoa, Jazzez Blai festibalari omenalditxo bat egitearren, Josu Salegi, Iñigo Ruiz de Gordejuela eta Malwina Masternakek eskaini ziguten; jende asko bertaratu zen eta jazz musika paregabeaz gozatzeko aukera izan genuen. Bigarrena Xabi Larrañaga elgoibartarrak eskaini zigun, estilo blueseroaz bertsio zein abesti propioak joz; dudarik gabe, denok aho zabalik utzi gintuen Ellie Jensen taldeko kide-

ak, bakarlari gisa aurrera eramandako emanaldian.

Hurrengo kontzertua Debako hainbat musikariz osatutako emanaldia izan zen eta, kasu honetan, musikariek kantu ezagunak bertsionatu zizkiguten, instrumentu eta ahots desberdinez; herriko musikari afizionatuek beren txokoa izateko aukera bikaina izan zen, baita lagunartean garagardo bat edan eta jende ezagunaren musikaz gozatzeko ere. Laugarren emanaldia Asanbladaren inguruan ibili izan den Hernaniko lagun baten eskutik etorri zitzaigun: Erroka taldearen eskutik. Azkenengoz, herriko bi neska gaztek eskaini digute emanaldia; Itsaso Iciar eta Martina Soto izan dira Asteazken Akustikoak itxi dituzten bi artistak, eta benetan kontzertu goxo

## iritzia



**ITSASO  
ARAMENDI**

Bigarren semearen haurdunaldia pasa berri dut koronabirusaren pandemiak gure egunero-koa baldintzatu duen honetan. Haurdunaldiak aurrera egin ahala, aurrekoarekin izan nuen galdera bera etorri zait burura, baina distantzia sozialaren garrantzia ahoz aho dabilen honetan, indar handiagoz: noiz uzten dio nire sabelak nirea izateari jabetza publikokoa bihurtzeko? Izan ere, haurdun zaudela nabarmentzen hasten denetik, biribiltzen hasten zarenetik, edonor ausartzen da, harategiko ilaran edota kalean topo egindakoan, emakumeon tripa ukitzen, edo erosi berria duen itsuen kupoia sabeletik pasatzen. Eta ez naiz ari senide edo hurbileko pertsonen, ez soilik behintzat; justu-justu bistaz ezagutzen dituzun beste askok ere berdin-berdin jokatzten dute. Ez dizuet ukatuko euren

gerribuelako mitxelinetatik heldu edo euren burusoilak laztantzeko gogorik izan ez dudarik horrelakoetan.

Badaude, bestetik, besteren gorputza inbaditzeko orduan baimena eskatzen dutenak ere: *Uki dezaket?* galdera bera nahikoa inbaditzailea izango ez balitz bezala. Gogo txarreko baiezeko bat ematen diozu edo haurdun egoteagatik ozpinduta dabilena bihurtzen zara. Inondik ere, petrala zeu zara, hormonak dantzan dituzu eta.

Haurra jaio ondoren, berriz, amaren sabeletik haurraren burura pasatzen da erakarpen- indar hori. Ezertaz ezagutzen ez dituzun pertsonen agurtzen zaituzte kalean, eta protokolozko "zorionak" eta "zein polita den" esan ostean, haurra eskukatzeari ekingo diote, azken mendeko pandemiarik larrienean egonda ere!

## Distantzia



eta hurbilekoa izan dugu entzungai.

### “Ilunabarrak eta abar”

Bestalde, uda honetan Gazte Asanbladak antolatutako beste ekimen batzuen artean, *Ilunabarrak eta abar* izeneko gai sozialeko dokumental zein hitzaldiak izan ditugu astelehenetan Gaztetxean:

Lehenengo, Saharako lurralde okupatupei zein errefuxiatuen kanpamenduei buruzko *Soukeina; 4400 días de noche* dokumentalaren emanaldia eta ondorengo hitzaldia Garazi Hach Embarek-en eskutik.

Bigarren, *Un mundo donde quepan muchos mundos* dokumentala eta, ondok, aurten bertan izan den herrikide baten eta Chiapasen lanean ibili den Lumaltik GKEko kidearen testigantza.

Azkenik, Yolanka Okeli guatemalarraren hitzaldia, lurraldearen eta ekologiaren aldeko borrokan buru-belarri aritzeagatik Euskal Herrira errefuxiatu gisa etorri behar izan duen aktibistarena.

*Nosotros los negros* dokumentalaren emanaldia, berriz, bertan behera uztea erabaki zen, tamalez, astebete lehenago izandako koronabirusaren berragertzeen ondorioz.

Mila esker ekimen hauetara hurbildu zaretzen guztioi. Koronabirusarekin ere, kultura beti aurrera!

*Debako Gazte Asanblada*

## Abuztuaren 20an eta 27an eskainiko dira Udako Musikaldiaren baitan antolatutako hurrengo emanaldiak

Abian dago jadanik Debako 37. Udako Musikaldia. Hiru kontzertuz osatutako egitaraua antolatu du aurten Debako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin; abuztuaren 6an izan zen lehenengo hitzordua –Loreto Aramendi, Pablo Mezzelani eta Pedro Miguel Aginaga musikariekin–, eta hilaren 20an eta 27an izango dira hurrengo emanaldiak.

Abuztuaren 20an (osteguna) txistu eta piano kontzertua eskainiko dute Garikoitz Mendizabal txistulariak eta German Ormazabal pianistak.

Astebete beranduago, hilaren 27an, izango da hurrengo kontzertua, Paula Irigorri mezzosopranoa, Elena Sancho sopranoa eta German Ormazabal pianistaren eskutik.

Kontzertuak Santa Maria elizan izango dira, 20:30ean.

### Segurtasun protokoloa

Bizi dugun osasun-krisia dela eta, kontzertuetara joateko hainbat jarraibide bete beharko direla gogorarazi du Debako Udalak. Edukiera mugatua izango da emanaldietan eta turismo bulegoan aurrez lortu behar da gonbidapena –hura jasotzerakoan, izen-abizenak eta telefono zenbakia hartuko dizkiete herritarrei–.

Derrigorrezkoa da kontzertuetan eskuak garbitzea eta maskara erabiltzea –baita sarrera eta irteeran ere–. Era berean, ezingo da elizatik irten emanaldia amaitu bitartean, eta galarazita egongo da elizara sartzea kontzertua hasi ondoren.



## Zer ikusi, hura ikasi

Konfinamenduak alde bai positibo, bai negatiboak izan dituela esaten duen horietakoa naiz. Negatiboen artean, momentuan konturatu ez nintzen arren, hilabeteak pasa eta gero hainbat eta argiago ikusten dudana arazo bat dago: gure umek telebistatik jasotzen dituzten hizkuntza-ohituren eragina.

Telebistan euskaraz ematen duten beraien gustuko programen aukera eta gaztelaniazkoena konparaezina da, eta telebista ohi baino gehiago ikusi dugun denbora-tarte honetan, seme-alabek gaztelania zenbat barneratu duten ikusteak beldurtzen nau. Beraien etxeko erreferentziak euskaldunak izan arren, gaztelaniarekin erlazionatzen dute telebista; sofan, lasai, telebista euskaraz ikustea ezinezko balitz bezala.

Etxe barruko egoera horren ondorioa kalean ere ikus dezakegu, beraien aisialdian gero eta gehiago entzuten baita gaztelania. Are gehiago eskolaz kanpoko ekintzarik, udalekuak etab., eduki ez duten garai honetan.

Zerbait aldatu beharra daukagu; funtsezko deritzot haurtzaroan erreferente euskaldunak izateari, euskal hizkuntza gehiago maitatu eta erabiltzeko.

Telebista aldatzea oso zaila daukagun arren, izan gaitezen euskarazko erreferente gure seme-alaba eta ingurukoentzat. Laster datorkigu berriro ere Euskaraldia, hortxe hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskaraz gehiago, jende gehiagorekin eta gehiagotan egiteko ariketa polita.

Denon artean euskaldundu dezagun gure herria, eta euskararen etorkizuna bermatu!



**LEIRE  
AGIRREBEÑA**

iritzia

# San Roke jaiak

## *Argazki zaharrak*



San Roke eguna, berrogeiko hamarkadaren hasieran segur aski. Bertan ikus ditzakegu dantzariak San Roke ermitarako bidearen hasieran, jendetzaz inguratuta. Hondoan,

Barreratarren drogeria eta ezker aldean Javiera eta Mercedes Berasaluce-ren aterki-denda marradun toldoarekin. Era berean, ezker aldean Ortega taberna (lehen Ulacia oinetako-denda), eta hurbilago, ezkerretan hori ere, Trastorno taberna.



Hitlerren tropek Frantzia inbaditu ostean, Bidasoa ibairaino iritsi ziren. 1940 edo 1941eko argazki honek soldadu alemaniarrek erakusten ditu, zezenketa bat ikusten Deban. Oso ohikoa zen baimendun soldadu eta ofizial alemaniarrek muga zeharkatzea turismoa egiteko eta zezenketa bat zuzenean ikusteko; ikuskizun exotikoa haientzat.



Agian argazki hau izango da Debako San Rokeetako argazkirik zaharrenetako bat. XIX. mendearen amaiera edo XX. mende hasierako urteetako zezenketa bati dagokio. Bertan, udatiarrak ikus ditzakegu, balkoiak mukuru betez eta oso dotore jantzita.



Denbora asko ez dela, Debako festetan egun bat udatiarren omenezkoa izan ohi zen. XX. mende hasierako argazki honetan, egungo Ostolaza eta Lersundi kaleen elkargunean ateratakoa, zezenketaren aurretik herriko kaleetan zehar egiten zen "paseillo" a erakusten zaigu. Zutik ageri dira toreroak, denak ere udatiarrak, eta horien atzetik zalgurdia "Manola" k daramatzala.

Argazkiak eta oinak: Alex Turrillas Aranzeta

## IRATI BAROJA AGIRREGABIRIA

### “Botere-harremanak nola gauzatzen diren ikusteko ere balio dute festek”

Gizarte Langintzako ikasketak egin zituen Irati Baroja Agirregabiriak eta feminismoaren bidea hartu zuen ondorengo formakuntzetan eta lan-esperientzietan. 26 urte ditu gaur egun eta berdintasun teknikari lanetan dihardu azken bi urteotan Euskadiko Gazteria Kontseiluan. Soziologiako master bukaerako lana aurkeztu berri du orain, Debako San Roke jaiak genero perspektibatik ikertuz; lanaren mamia ezagutu nahian aritu gara berarekin *Berriketan*.

Master amaierako lana egin berri duzu. Zer da ikertu duzuna? Zertan oinarritu da lana?

Duela denbora bat, UNEDen Soziologiako masterrean izena eman nuen eta “Botere-harremanak eta jai tradizionaletako parte hartzea aldaketa-estrategia gisa. Kasu azterketa bat Deban” izeneko lan bat aurkeztu berri dut. Debako San Roke jaiak ikertu ditut genero perspektibatik, emakumeen parte hartzea eremu ezberdinetan nolakoa izan den jakiteko: antolakuntza-espazioetan, danborradan, eszena musikalean, dantzetan...

#### Zergatik aukeratu duzu gai hori, Irati?

Hainbat arrazoi izan ditut gai hau aukeratzeko. Alde batetik, iruditzen zait ikasle bezala egiten ditugun lan askok ordenagailuetan amaitzen dutela, norbere jakintzarako soilik balioko balute bezala. Horri buelta bat eman nahi nion eta herriarentzako benetako ekarpena izango zen lan bat egin nahi nuen; bere txikitasunean bazen ere.

Horrez gain, festak, oso ikergai interesgarria direla iruditzen zait, izan ere, egunerokoaren parentesi bat diruditen arren, botere-harremanak nola gauzatzen diren ikusteko balio baitute.

#### Zer bide edo metodologia erabili duzu ikerketa egiteko?

Lana egiteko, lehenik eta behin, festei buruzko berrikuspeneren bibliografiko bat egin dut eta horrekin marko teoriko bat osatu dut. Bigarrenik, elkarrizketak egin ditut, lana osatzeko informazio esanguratsua izan zezaketela uste nuen pertsonekin. Eta azkenik, eztabaida-saio bat egin nuen Debako emakume batzuekin, San Rokeei buruzko perspektiba feminista biltzeko.



#### Zeintzuk dira lanaren ondorio nagusiak?

Lehen eta garrantzitsuenak, Debako emakumeok bagaudela eta egon garea San Rokeetako parte hartzean. Kontua da zaintza eta erreproduktzio-lanetako espazioetan hartu dugula parte (Umeen Egunaren antolakuntza, esaterako) eta gure rola oso determinatua izan dela. Ez gara parte hartze publikoan jardun.

Beste ondorio batzuk hauek lirateke, labur esanda: emakumeek espazio publikoetan duten parte hartze baxua ez dela arazo bezala identifikatu, parte hartze espazio batzuk pribatuak direla, Udalean ez dagoela berdintasun sail egonkorrik, urteetan emandako aldaketak txikiak izan direla, eta abar.

#### Errealitate hau aldatzeko bide argirik bada? Eta gaintu beharreko oztopo nagusiak zeintzuk lirateke?

Uste dut inertzien aurka mekanismoak sortu behar ditugula. Erraza da aurreko urteko egitaraua hartu eta aldaketarik edo hausnarketarik egin gabe jaiak bide beretik antolatzea. Eta hau denoi dagokigun lana da, ez antolakuntza-espazio edota Udaleko teknikariei soilik.

2000 urtetik hona 66 emakume eta 708 gizon izan dira oholta gainean. Aldea handia da, ezta? Zergatik dira gizonetako festei hasiera ematen dien danborrada batean emakumeen parte hartzea zein izango den erabakitzen dutenak? Agian ez luke Ozio-Bidek soilik antolatu behar danborrada.

Galdera asko daude egiteke eta erantzunak denon artean aurkitu behar ditugu.

**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

**urlo**


SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net



## Debako Udalak gogorarazi du aurtengoan ez dela jairik izango

Egoera epidemiologikoaren eboluzioa dela eta, Debako Udalak ekainaren hasieran jakinarazi zuen aurten, horretarako baldintzarik ez dagoenez, ez direla San Rokeak ospatuko. Orain, abuztuan sartuta gauden honetan, Udalak berretsi egin du erabakia. **Berriketan**-i adierazi dio Udalak erabaki horren oinarrian dagoena, herritarrentzako mezuarekin batera:

“2021eko San Rokeak ohi bezala egin ahal izateko, beharrezkoa da orain osasuna zaintzeko neurriak hartzea. Gure kulturaren aldeko apustua egiten du Udalak, eta uneak ematen dizkigun aukerak baliatuta ari gara kultur eskaintza lantzen. Baina San Rokeetan jende-pilaketa handiak izaten dira eta ondorioz ez dago baldintzarik hauek egiteko. Gure begirada 2021eko festetan daukagu jarrita. Gogoia ez dugu galdu eta oraingo indarrak baliatuko ditugu datorren urteko festak hobek izan daitezten. Debako Udalak eta herriko eragileek debarrei eskatzen diegu elkartasunez, arduraz eta zentzuz jokatzeko eta elkar zaintzarako deia egiten dugu. Datorren urtean jantziko dugu berriz zapi gorria eta festen zirrara indartsuagoa izango da”.

Udaleko ordezkarienez gain, herriko eragileek eta festetan parte hartze aktiboa duten hainbat pertsonak ere bat egin dute adierazpen horrekin.

Berdin jokatu du Itziariko Auzo Udalak ere festei dagokienez. Bertan behera laga ditu, “erantzukizunez”, Kopraixak, baita jubilatuen eguneko ekintzak eta Salbatore eguna ere. Era berean, irailean ospatzen diren Lasturko San Nikolas jaiak ez egitea erabaki du.

### Gaueko aisialdia arautzen duen agindu berria

Eusko Jaurlaritzak emandako azken aginduak ere ez du lagun-tzen ohiko festak aurrera eramaten. Uztailaren 27ko astean sartu zen indarrean COVIDak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko Osasun Saila lantzen jardundako azken agindu hori. Horretan biltzen den neurri nagusietako bat da ostalaritzako establezimenduek (tabernak, jatetxeak, txokoak edo diskotekak) ezin izango dutela irekita egon 01:30etik aurrera, asteke egun guztietan.

Agindu berriak eguneratu egiten du ekainaren 18an argitara ateratakoa, eta neurri-pakete bat ezartzen du. Nabarmentzekoak:

- Ostalaritzaren eremuan establezimenduek ezin izango dute itxi 01:30 baino beranduago, eta ordu erdi izango dute taberna husteko. Gainera, ezin izango dute ireki 06:00ak baino lehenago. Neurri hori tabernetan, jatetxetan, txokoetan eta elkarte gastronomikoetan aplikatuko da. Gaueko aisiako diskotekak eta establezimenduek ere ezingo dute irekita egon 01:30etik aurrera; % 60koa izango da gehienezko aforoa, eta dantza-pistarik gabe jarraituko

dute (horren ordezkariak egongo dira).

Kanpoaldean, 0:00etatik aurrera, eserita eta terrazetarako mugatutako espazioan soilik kontsumitu ahal izango da.

Ekitaldiek 100 pertsona baino gehiago biltzen dituztenean, lokalaren gehienezko aforoa ezin izango du gainditu % 80ko ehuneko, eta bertaratuak gehienez 10 laguneko taldetan banatuko dira. Gainera, establezimendu guztietan, oro har, 1,5 metroko distantzia fisikoa bermatu behar da mahaien artean. Distantzia hori mahaietatik hurbilen dauden pertsonen artean neurtu behar da. Gehienezko okupazioa 10 pertsonakoa izango da.

- Beilatokietan gehienez 60 pertsona bilduko dira, bizikide izan ala ez, eta gehienezko aforoa % 60koa izango da leku itxietan. Beilatokietara ezin izango da bertaratu adierazitako pertsonen kopurua gainditzen denean, aldi berean etorri ez badira ere. Ehorzketetan ere 60 pertsona izango dira gehienez.

- Gainera, debekatu egiten da edozein jarduera gazteen lonjatan eta antzeko lokaletan.

- Bestalde, argitu egin dira alderdi batzuk maskararen derrigorrezko erabilerari buruz. Zehazki, lantokian, maskara ez da derrigorrezkoa izango langileak beren lanpostuetan eserita daudenean. Derrigorrezkoa izango da, berriz, langileek espazioak partekatzen dituztenean, korridoreetan dabilzanean, bileretara joaten direnean, edo beste edozein egoeratan, langileak elkarrengandik hurbil badaude.

- Aginduak aukera ematen du lurraldearen eremu batean espezifikoki aplikatuko diren neurriak ezartzeko, egoera epidemiologikoaren arabera.



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)

**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



# Debarrak munduan

## IÑAKI IRIONDO LECEA

**Hogeita lau urte daramatza Ingalaterran Iñaki Iriondo Leceak eta, "ateak irekita" uzten dituen arren, "gaitz" ikusten du Debara bizitzera bueltatzea. Chartered Institute of Management Accountants ikasketak egin zituen (CIMA) eta multinazional batean dihardu lanean gaur egun, kontulari. 52 urte ditu eta kirolzalea da, gustuko du *body weight*-a eta korrika egitea. Londrestik erantzun ditu *Berriketan*-ek egindako galderak.**

### Non zabilta gaur egun? Zergatik?

Londresen bizi naiz, 1996ko urrian etorri nintzen hona. Londres hiri ederra da, bai bertan bizitzeko, bai oporretan etortzeko, hiri handiak gustuko dituenarentzat. Zeregin asko dago eta lanerako eskaintzen dituen aukerak ere ikaragarriak dira. Hiri handiak beti izan ditut gustuko.

### Zerk eraman zintuen hara?

Ingelesa ikastera etorri nintzen, denbora muga eta itzultzeko txartelik gabe.

### Zertan zabilta uneotan?

Kontulari bezala egiten dut lan multinazional batean, eta gustuko dudana lana da.

### Espero zenuen bezalakoa da Londres? Zerk harritu zintuen?

21 urte nituenean etorri nintzen Londresera bi lagunekin, uda igaro eta, aldi berean, ingeles pixka bat ikastera. Uda hemen igartzeko lantxo bat aurkitzea beharrezkoa zen, bestela akabo abentura. Esperientzia horrek hau nolakoa zen ikusteko aukera eman zidan: ohiturak zeharo desberdinak dira, eta horiek ikasi eta beraietara egokitzea ezinbestekoa da. Hemen dauden janari azkar eta *take-away* jatetxe kopuruak harritu ninduen; orain normalizat dut hori. Oraindik bada harritzen nauenik baina, goizean goiz jendea McDonald's-en gosaltzen ikusteak, adibidez.

### Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Ingelesez bizi naiz. Euskara etxekoekin telefonoz hitz egiten dudanean eta Debara joaten naizenean praktikatzen dut. Hala ere, bestela erabili ez arren, Euskadi Irratiko "Faktoria" programa eguneroko entzuten dut. Euskara txirrinduan ibiltzea bezalakoa da, txikitik ondo ikasiz gero ez da ahazten. Niri ez zait ahaztu!

## Laburrean

### Paisaia bat:

Egungentia, eguzkia horizontean irteten ikustea

### Usain bat:

Labandarena

### Zapore edo jaki bat:

Txibiak saltsa beltzean

### Gustuko dut...

Emandako hitza betetzea (sare sozialetan: Instagram)

### Ez ditut gustuko...

Gezurra eta hipokresia (sare sozialetan: Facebook)

### Amets bat:

Politikari eta agintari ustel guztiak zigortu eta zigorrak oso-osorik betetzea

### Kolore bat:

Gorria



### Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

Londresko hizkuntza ingelesa izan arren, hemen 100 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira. Erresuma Batuan, Welsh (Gales) hizkuntza ere badago, gutxi hitz egiten dena.

### Zer eramango zenuke horra Debatik?

Hemen neguan egunak oso motzak dira, beraz, oso ilunak. Nik hor duzuen argitasuna ekarriko nuke.

### Eta zer ekarriko?

Deban hezetasun handia duzue. Hemen, euri asko egin arren, airea horkoa baino lehorragoa da. Beraz, horixe eramango nizuke.

### Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Debara beti joango naiz, oporretan, familia eta lagunak ikustera. Bizitzera? Hori gaitz ikusten dut, ideia hori ez zait oraindik bururatu. Nork daki bihar zer gerta daitekeen... ate hori irekita uzten dut.



## BEGIRADAK: zazpi urte bete dituen familia anitza



ITURRI ONDOAN programaren baitan bada, hasieratik, abian dugun ekimen bat: BEGIRADAK. Programarekin batera jaio zen orain dela zazpi urte eta momentuz bertan jarraitzen du, parte hartzaileek segitzeko gogoia eta ilusioa badaukatelako oraindik ere.

Garai hartan ez zen oraindik asko ikusten hitzezko helburua zuten ekimenetan hitzik gabeko arte-sorkuntzarik. Gaur egun asko ugaritu dira horrelakoak, baina garai hartan ez zen ohikoa. Hitza oinarri eta helburu hartuta, irakurketak, kantaldiak, kontaketak, bertso-saioak, antzerki-emanaldiak... erraz samar imajina zitezkeen, baina irudia (argazkia, bideoa, animazioa...) hitzarekin uztartzeak berrikuntzatik, pixkatxo bat behintzat, izan zuela esango nuke.

Gogoan dut lehenengo urteko irudigileekin harremanetan jarri nintzenekoa. Batzuk neuk ezagutzen nituen, Udaleko Kultura Sailaren bitartez animazioaren arloan ikusiak nituelako, edo herriko taldeen kartelak egiten hasiak zirelako, edo Arte Ederrak ikasten ari zirela banekielako... Beste batzuk aurreko horien bitartez ezagutu nituen.

Nik uste eurak ere harritu zirela hasieran planteamenduarekin; ez zutela imajinatzen Euskara Sailarekin zerbait egin zezaketarik. Baina asmoa azalduta, hasiera-hasieratik baiezko biribila jasotzeak poztu egin ninduen, noski. Eskuzabal eta ekarpenak eginez hartu zuten parte hasieratik. Bigarren zatia errazago iruditzen zitzaidan. Herrian beti egon da jendea idatzi duena: izan Kultur Elkarteak antolatutako literatur lehiaketetan, Udalak antolatutakoetan, *Berriketan*-en... Baneukan norengana jo.

Eta horrelaxe hasi ginen irudiak sortzen eta irudi horiei literatur testutxoak jartzen. Normalean, ia beti, irudi berari testu bat baino gehiago. Gauza beraren aurrean, zeinek begi-

ratu, zer gauza diferente ikus ditzakegun azaldu nahian edo. Bizitzan bertan gertatu ohi zaigun bezalaxe. Bakoitzaren begirada, bakoitzaren bizipenetatik, normalean. Begiradak. Desberdinak.

Urtez urte berrikuntzak sartzen saiatu izan gara: dantza, musika, kantuak,... Idatzietan ere formatu desberdinak: testu kateatuak, bertso baten oinak gaitzat jarrita egindakoak... Tartean baditugu euren lanak argitara eman dituzten kideak: erakusketak egin dituztenak, liburuak plazaratu, zinema-jaialdietan sarituak izan direnak... Eta haiekin batera, baditugu, euren txikitasunetik ekarpena egiten dutenak. Baditugu kide helduak eta baditugu gazteagoak; baditugu neskek eta baditugu mutilak; baditugu ideologia edo ingurumari desberdinetakoak. Denak batera, eskuz esku aritzen direnak. Hori ere badelako helburu: herritarron artean harreman-sare berriak sortzea, jostea...

Eta familia baten antzeko izatera iritsi gara. Zaletasunak elkartzen gaitu: idaztea gustatzen zaigu, irakurtzea, kantatzea, margotzea, dantzatzea... Sortzea, finean. Eta urtez urte gehitzen zaigu baten bat berria gainera. Eta hori pozgarria da, oso, guretzat.

Ea horrelaxe jarraitzen dugun eta jende gehiago biltzen zaigun; ekimena aberatsagoa, anitzagoa eta ugariagoa izango delako horrela.

Artikulu hau irakurrita, idatzi edo irudia egin gogoz geratu bazara, ez izan dudarik eta jarri harremanetan Udaleko Euskara zerbitzuarekin edo, errazagoa bazaizu, taldeko beste edozein kiderekin, argazkian ikus ditzakezu horietako asko. Ongi etorria izango zara.

Amaia Zinkunegi  
Udaleko euskara teknikaria

# GAZTEAK *idazle*

Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkartek elkarlanean antolatutako ipuin lehiaketan saritutako lanak dituzue hemen. Lehen eta bigarren zikloko lehen sariak irabazi dituzten ipuinak dira. Irakurketa on!

## OPORRETATIK BUELTAN

Amaia dut izena. Nire ustez, pertsona alai eta lasaia naiz, baina haserretzen naizenean deabrua baino ankerragoa naiz. Nire amarekin nago. Nahiko lotsatia da, baina ezagutzen duen jendearekin hitz eta pitz jarduten du beldurrik gabe. Kanarietan nago berarekin eta aireportura doan autobusa hartzerara goaz. Garraioa hamaiketan hartu behar dugu eta hamaikak laurden gutxi dira, baina arazo batzuk ditugu: geltokitik bost hamar minutura gaudela uste dut gutxi gorabehera, mailetekin goaz korrika eta ez dakigu ondo bidea. Ahal dugun moduan goaz hurbiltzen autobus geltokirantz. Ia iristear gaudela esango nuke, bidean gero eta autobus gehiago ikusten dira eta, baina bat-batean, espero ez nuen gauza bat gertatu da.

Pasa ahal zitzaigun gauza txarrena da: nire amak Madrilgo unibertsitatean egin zuen lagun minarekin egin dugu topo, urteetan ikusi ez duenarekin. A zer kasualitatea! Egoera txarra da, denboraz justu gabiltza, baina ama gai ikusten dut berarekin hizketan gelditzeko. Lehenengo hitza esatera doazenean pentsatzen hasi naiz: "hau eternitatea izango da. Seguruenik amak lagunaren aurpegia ikustean berandu gabiltzala ahaztu du, agian baita irla hauetan oporretan gaudela ere. Hau da hau



zorte txarra justu bere lagun mina ikusi izana. Orain, beraien bizitzaz, seme-alabez, ekonomiaz... hitz egiten hasiko dira, apustu egingo nuke. Eta haserretzen badira? Nola, ez dakit, baina lotsa emango lidake bien aurrean egoteak jendea begira egongo balitz. Edo bestela hil arte geratuko dira hitz egiten, edo berarekin bizitzen geldituko gara hemen, Kanarietan; begira, ez litzateke txarra izango! Egia esanda, hamarretik gorako lurrikara baten epizentroaren gainean egongo balira, lasai asko jarraituko lukete mingainari ematen". Baina benetan hau gertatu da, ez da elkarriketarik egon. Lehenengo hitzak hauek izan dira:

-Kaixo aspaldiko! Barkatu, hitz egin nahiko nuke, baina presarekin gabiltza, aireportura doan garraioa

laster aterako da eta! -esan du amak.

-A zer pena! Zure etxera iristean deitu mesedez -erantzun dio burumakur lagunak.

Hitz horiek trukatu eta azkar-azkar agurtu dute elkar.

Ezin dut sinetsi, bi segundo izan diren arren, niretzat eternitatea izan da. Azkenean gepardoa baino azkarrago iritsi gara geltokira korrika. Autobusera puntual iritsi garenez, hegazkina lasai hartu dugu. Etxera iritsi garenean, amak lagunari deitu dio berehala. Ia bi ordu egon dira hizketan arnasarik hartu gabe, eskerrak elkar ikustean bi segundo bakarrik izan ziren!

Anitz Zurita  
(1. zikloko lehen saria)



## GAU ILUNEAN

-Gau ilunean beldurra... beldurra nabaritzen zen airean egun trumoitsu hartan... Gorpu bat, gorpu bat ibaiaren korrante nahasian behera, behera, behera...

...

### Maura

22:55

Liluratuta geratzen naiz euria egiten duen bakoi-tzean. Orduak pasatuko nituzke euri-tantei begira leihoa kolpatzen dutenean. Egun hura halakoxea zen, euritsua.

Gauak harrapatu ninduen trenaren zain nengoan geltoki ziztrinean. Ordulariari begiratzen nion behin eta berriz, trena laster iritsiko zen esperoan. Oraindik bost minutu falta zirenez, leihora hurbildu nintzen eta gelditzen ziren euri-tantei begira gelditu nintzen tentelduta. Jada ez zuen euririk ari, orain dena isilik zegoen, isilegi neure gusturako. Orduan, leihotik begiratu nuen eta mundua gelditu izan balitz bezala izan zen. Ingurura begiratu nuen eta konturatu nintzen gelto-kia hutsik zegoela, bakarrik nengoela. Beldurrak irentsi ninduen momentu horretan, eta nire bihotzaren taupaden erritmoa izugarri bizkortu zen: taup-taup-taup-taup... Berriro burua biratu nuenean odola izan zen ikusi nuen lehenengo gauza. Odola! Gizon bat ikus nezakeen kaosaren erdian, espresiorik gabea, bere aurrean zuen hildakoari begira. Ni ohartu orduko gizonak bira eman zuen eta gure begiradak gurutzatu egin ziren. Bi segundo izan ziren arren, niri eternitatea iruditu zitzaidan. Nire bihotz aztoratua bat-batean gelditu egin zen, makina bati off botoia zanpatzen diozunean bezala. Orduan jakin izan banu hurrengo egunean bere begien kolorea bakarrik deskribatu ahal izango niola poliziarri...

...

### Izengabekoa

22:30

Iritsi da gaua. Gaur pertsona bat hilko dut.

Ohean etzanda nengoan, sabaiari begira, beste hainbestetan bezala. Nire gorputzak mila kilo pisatuko balitu bezala sentitzen nintzen, eta ohetik baldarki altxatu nintzen, hasperen eginez. Sukalderantz abiatu nintzen zerbait jateko intentzioarekin, baina orduan gau horretan egin behar nuenarekin gogoratu eta tripak nahastu zitzaizkidan. Korrika batean komunerako bidea hartu nuen eta, bertan, jan nuen guztia bota nuen. Bukatu orduko, komuneko bonba bota eta ispi-luan neure irudiari begira gelditu nintzen. Aurrean, hogeita hamar bat urteko gizon bat ikus nezakeen



baina bere begiei erreparatuz gero, laurogei urteko agurea ematen zuen. Barnean neukan sentimenduzurrunbilo ikaragarria bat-batean askatu zen eta dena kanporatu nuen garrasi batez. Berriz ispilura begiratu nuenean, beste gizon bat ikusi nuen nire parean, indartsuagoa, ausartagoa, edozer egiteko gai zena. Komuniket atera eta sukaldean nuen aitzorik zorrotzena hartu nuen. Txamarra ilun bat jantzi eta nire etorkizuna betiko aldatuko zuen ekintza egitera abiatu nintzen. Labanaren aho hotzaren kontaktuak suspertu egin ninduen eta kanpoan zegoen hezetasunaz guztiz ahaztu nintzen. Banekien non aurkitu bilatzen ari nintzen pertsona. Gau hura isila zen, perfektua, inork ez ninduen ikusiko eta. Azkenean iritsi nintzen tren-geltokira. Hurbilean entzun nezakeen ibaiaren uraren soinua eta haize fin batek xuxurlatu zidan belarriera hurbil zegoela bilatzen ari nintzen gizona. Halako batean, begien aurrean ikusi nuen, eta zaratarik egin gabe hurbildu nintzen berarengana. Bizkarra ematen ari zitzaidan. Doitasun handiz hartu nuen labana eta zalantzarik gabe bere bihotz ustelduan iltzatu nion. Urteetan hainbeste sufriarazi zidan pertsona zerraldo erori zen lurrera, eta begietara begiratu ninduen bere azken hitzak esan baino lehen: Max. Nire familia torturatu eta hil zuen naziaren aurpegiari begiratu nion sentimendu zipitzik adierazi gabe. Izena ere lapurtu zidan bihozgabeak. Burua altxatu nuen, presentzia bat sumatuz. Emakume baten begiradarekin topo egin nuen eta dena desagertu zen ezustean.

Beldurra bakarrik geratzen zitzaidan orain, beldurra...

Barkatzeko gai izan banintz...

*Maite Aperribai  
(2. zikloko lehen saria)*

**ABUZTUAK 12, ASTEAZKENA**

-22:00. **Asteazken akustikoak:** Itsaso eta Martina, Kultur Elkarteko plazan.

**ABUZTUAK 15, LARUNBATA**

-18:00. **Pilota; palazko finalak.** Eskuz: Aimar Egiguren-Ekain Lizeaga vs. Eñaut Lizeaga-Jakes Elozegi. Palazko finalak, Aldats pilotalekuan.

**ABUZTUAK 20, OSTEGUNA**

-20:30. **Kontzertua: 37. Udako Musikaldia.** Txistua eta pianoa: Garikoitz Mendizabal eta German Ormazabal, Santa Maria elizan.

**ABUZTUAK 27, OSTEGUNA**

-20:30. **Kontzertua: 37. Udako Musikaldia.** Kantua eta pianoa: Paula Iragorri, Elena Sancho eta German Ormazabal, Santa Maria elizan.

**ABUZTUAK 28, OSTIRALA**

-19:30. **Azken ostirala.** Preso eta iheslari politiko-koen eskubideen aldeko mobilizazioa plazan.

**IRAILAK 3, OSTEGUNA**

-18:30. **Bisita gidatua: "Debatik Zumaiara itsasontziz".** Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**IRAILAK 4, OSTIRALA**

-10:15. **Bisita gidatua: "Flysch beltza".** Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**IRAILAK 12, LARUNBATA**

-51. **Kaleko margo sariketa.**

**IRAILAK 13, IGANDEA**

-20:00. **Kontzertua: Nazioarteko Flysch Organo Zikloa.** Montserrat Torrent organistaren emanaldia, Santa Maria elizan.

**Elkartasun-tonbola**

-Udako **tonbola** antolatu du aurten ere Debako Caritas elkarteak. Boleto guztiak agortu bitartean egongo da zabalik (abuztuan), Portu kalean (Sagarna denda zegoen lokalean), 12:00etatik 22:00etara. Abuztuaren 31n egingo da zozketa berezia; dendan eta [www.deba.eus.turismo](http://www.deba.eus.turismo) atarian jakinaraziko dituzte zenbaki sarituak.

**Irteera gidatuak**

-Abuztuaren 18an, 19an, 20an eta 21ean **Flysch at Night irteera gidatuak** egingo dira, Debanaturak antolatuta. Safari gaurtarrak izango dira, marearteko zabalgunean, 22:00etatik 00:00etara.

Informazio gehiagorako: 695 783 656 telefono zenbakia, [debanatura@hotmail.com](mailto:debanatura@hotmail.com) edo [www.debanatura.eus](http://www.debanatura.eus).

**Beka-deialdia**

-XV. **Tene Mujika beka** sortu dute Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak. 6.000 euroko diru-laguntza emango diote irabazleari. Abenduaren 9an amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus) ataria.

**"Eraso sexistarik gabeko uda baten alde"**

-Errespetuan, berdintasunean eta autonomian oinarritutako jarrerak sustatzeko helburuz, Debako Udala *"Beldur Barik Uda 2020: Eraso sexistarik gabeko uda baten alde"* sentsibilizazio-kanpaina sustatzen ari da uda honetan ere. Gutun baten bitartez, tabernariei eskatu die kanpainarekin bat egin dezaten. Eduki matxista edota LGTBI-fobikoa duten musika, bideoak, jarrerak, hizkuntza... saihestera dei egin dute. Halaber, jarrera matxista edota LGTBI-fobikoen aurrean jarraitu beharreko jarduera protokoloa ere helarazi die tabernariei.



**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**  
 HORTZ-SENDAGILEA  
 Odontologia orokorra,  
 kirurgiak eta implanteak  
 Hondartza Kalea, 20 - behea  
 Tel.: 943 192 819  
 20820 Deba

Jarri zure publizitatea  
 Berriketan aldizkarian!



**943 191 383**  
[berriketan@zuhatzak.com](mailto:berriketan@zuhatzak.com)

**ZAINTZAKO BOTIKA**  
 Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **abuztuak 14, 15, 16.**  
**irailak 11, 12, 13.**

Burgoa Zuazo: **abuztuak 28, 29, 30.**  
**irailak 25, 26, 27.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: uztailak 18 eta 25 / irailak 12 eta 19  
 BURGOA ZUAZO: abuztuak 29 / irailak 5 eta 26

9:30 - 13:00



**Uzuri**  
 optika audio  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA  
 ZAINTZEN**



Ostolaza, 7  
 20820 DEBA  
 Tel: 943192192

RPS:183/12

LIZ.-ZK.: 3

**TaxiAlain Deba**

WiFi

**www.taxideba.eus**

**636 135 008**  
alain@taxideba.eus

MARIE CASTRO Iribarren



MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

**28 URTEKO ESPERIENTZIA**

**Tel.: 677 557 615**

**DEBA**

**RAIKETAK S.L.**

**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA

Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com

**A D**

**ASESORIA DEBA**

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

**ALBIZU**

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada Nº 2/05/049  
NIVEL 2

**ARKATZA**

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxes: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**ieraenea**

liburudenda


"mailo ditut nire/guro basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Tel:943 53 95 20- E-mail ieraenea@gmail.com

**GENOVEVA**

Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**k**

**kutxabank**

**sasoiiko**

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

**ITXAS GAIN**

**Taberna**

ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte gustian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**IGARZA**

TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**Argazkilaria**

Ander Salegi

(argazki erroportaiak, photoshop-eko errotokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tf: 685 703 843



Jakin dezagun noraino  
ailegatu den Euskera  
getariarrekin lurrari  
buelta osoa ematera  
hernaniarrak igo zuen  
mendietako gailurrera  
debarrok ez dugu zertan  
eraman Marte aldera  
bertatik mugitu gabe  
urrun iritsiko gera  
uda honetatik hasi  
eta hemendik aurrera  
Euskera zabal dezagun  
lekurik ederrenera  
Debara datorrenaren  
belarri eta bihotzera.

MIKEL AIZPURUA

GUREAN ERABILIZ EUSKERA  
urrun iritsiko gera

Zuhertza  
euskara elkartea MMZ deba